

2019ko kontratazioaren analisi: prekarietatea gorantz

Emakumeei egindako
kontratuen erdiak lanaldi
partzialekoak izan ziren



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
Aldi baterako kontratazioa, arau orokorra.....	3
Emakumeei egindako kontratuen erdiak lanaldi partzialekoak izan ziren.....	5
Ondorioak	6

1. SARRERA

Txosten honetan Hego Euskal Herriko 2019ko kontratazioaren egoera aztertzen da zehatz-mehatz. Horretarako, batetik, ekitaldi horretan erregistratutako kontratuak aztertu ditugu, eta, bestetik, urte amaieran soldatapeko biztanleen egoerari erreparatu diogu. Lehenik eta behin, aldi baterako kontratazioa aztertuko dugu (kontratuen batez besteko iraupena barne), eta, ondoren, lanaldi partzialeko kontratazioa.

2. ALDI BATERAKO KONTRATAZIOA, ARAU OROKORRA


Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren arabera, 1.406.992 kontratu egin ziren 2019an Hego Euskal Herrian. Kontratuen %50,4 emakumeei egin zitzaizkien, eta %49,6 gizonei.

Kontratu kopurua hain handia izatea ez da albiste ona. Alderantziz, enpleguan dagoen prekarietate handiaren sinonimo da. 1.042.000 soldatapeko biztanleen artean kontratu kopuru hori egoteak, erakusten du, aplikatzen diren politikek eragindako arazo larri baten aurrean gaudela (permisibitatea kontratazioan dagoen iruzurrarekin, lan-erreformak ...).

2019an egindako kontratuen %7,8 soilik izan ziren mugagabeak (%8,2 gizonen kasuan eta %7,4 emakumeen kasuan). Gainerako kontratuak, %92,2, behin-behinekoak izan ziren.

Gehien egin zen kontratu mota produkzioaren zirkunstantziak eragindako behin-behinekoa izan zen (%47,2), ondoren obra edo zerbitzuarena (%25,9) eta gero bitartekotasunarena (%15). Agerikoa da iruzurrezko praktika orokortu bat dagoela, non behin behineko kontratuak egiten dira inolako justifikazio gabe. Halaber, baita ere agerikoa da lan-ikuskaritzak ez diola behar bezalako erantzunik ematen kontratazioan egiten den iruzur horri.

HEHn 2019an egindako kontratu motak (%)




SEPEren autonomia-erkidegoetako datuek ez dute kontratuen iraupenaren batez bestekoaren informaziorik ematen, eta ez dute aukerarik ematen analisia egitearen bitartez HEH mailako zifra zehatza ezagutzeko. Hala ere, informazioa eskuragarri dauden kontratuetatik, badakigu %75ek (667.577) hilabete baino gutxiagoko iraupena izan zutela 2019an.

INEk 2019ko laugarren hiruhilekoan egindako Biztanleria Aktiboaren Inkestak erakusten du Hego Euskal Herrian soldatapeko pertsonen lau kontratutik bat (%24,6) behin behinekoa zela. Erantsitako grafikoan kontratu-mota horien ehunekoak izan duen bilakaera ikus daiteke. Kontratu tenporalen proportzioak behera egin zuen krisia hasi zenean, %28,6tik %20,3ra. Enplegu suntsiketa behin behineko kontratua zuten langileen gainean kontzentratu zen, horren ondorioz, kontratu horiek enpleguan zuten pisua murriztu zen. 2012tik aurrera, ordea, berriro ere hazkundea eman zenean, horien pisua berriro hazi zen.

Hego Euskal Herriko ehunekoak Europar Batasuneko herrialdeetakoekin alderatzean, HEH azken posizioetan ageri da. Behin-behinekotasun maila handiagoa duten bi herrialde baino ez dira agertzen, Espainiar Estatua eta Montenegro. Grafikoan ikusten dugu Europar Batasunaren maila %15etik behera egonkor mantendu den bitartean, HEHrena ez dela horrela izan.

Behin-behineko kontratuen tasaren bilakaera HEHn eta Europar Batasunean




3. EMAKUMEEI EGINDAKO KONTRATUEN ERDIAK LANALDI PARTZIALEKOAK IZAN ZIREN

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuek aditzera eman dute lanaldi partzialeko kontratuek duten intzidentzia handia. 2019an HEHn egindako kontratu guztien %36,9 lanaldi partzialekoak izan ziren.


Nabarmentzekoa da bi lurraldeen arteko aldea, EAEn %40,1 izan baitziren mota horretako kontratuak, eta Nafarroan, berriz, %28,6.

2019an egindako kontratuen lanaldi mota



Datuek ere agerian uzten dute gizonen eta emakumeen arteko aldea bi lurraldeetan. EAEn, emakumeen kasuan, kontratu-mota hori %53,4ra iritsi zen, eta Nafarroan, %38,3ra. Aldiz, gizonek, emakumeen ehunekoaren erdia izan zuten: %26,7 EAEn eta %18,5 Nafarroan.

2019an lanaldi partzialesan egindako kontratuen ehunekoa



INEk egindako Biztanleria Aktiboaren Inkestak erakusten du laugarren hiruhileko kontratuen %17,1 lanaldi partzialekoak zirela. Emakumeen kontratu partzialen ehunekoa gizonena baino askoz handiagoa izan zen, %27,7 eta %7,3, hurrenez hurren. 2007az geroztik izandako

bilakaerak erakusten du lanaldi partzialeko kontratuen ehunekoak gora egin zuela, %13,6tik aipatutako %17,1era

4. ONDORIOAK

Hego Euskal Herrian egiturazko arazo bat dago egindako kontratu motei dagokienez. Behin-behinekotasun eta partzialtasun handia lan-ezegonkortasunaren sinonimoa da. Gainera, behin eta berriz errepikatzen digute krisiaren aurreko aldiko enplegu maila "antzekoetan" gaudela. Errealitatean, azpitik gaude, eta kopuru estimagarrian (100.000). Baina, horretaz gain, sortutako enpleguek, soldata txikiak, behin-behinekotasun handia, partzialtasun handia eta produktibitate txikia dituzte ezaugarri, eta oso sentikorrek dira ziklo ekonomikoarekiko. Prekaritatea bereziki zerbitzuen sektorean ezarri da eta zehazki, gazteei eta emakumeei eragiten dio.

ELAk enplegu-politiken erabateko aldaketa eskatzen du, hala nola lan-erreformetan atzera egitea, lanaldia 35 ordura murriztea, kasu gehienetan legez kanpokoa den behin-behinekotasuna eragozteko lan-ikuskaritzaren benetako ekitea, etab. Horretaz gain, aurrekontu- eta zerga-politika bat, sozialki beharrezkoak diren sektoreetan enplegua sortzera bideratua, eta euskal produkzio-sistema eraldatzea beharrezkoa da trantsizio sozialari aurre egiteko.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA